



Naturan Hezi, lore garaian

Mar. 01 - Api. 18 2021

Kod. @22-21

Mod.:
Online

Edizioa
2021

Jarduera mota
Luzapen luzeko online ikastaroa

Data
Mar. 01 - Api. 18 2021

Hizkuntzak
Euskara

Balio akademikoa
45 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Ikastaro honek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea du (2068170048 kod.) unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailaren baliozkotzea ere dauka irakasleen etengabeko prestakuntza gisa.

Udaberrian sartzear gauden honetan, gutxi dira bitxilorea, hirusta, San Jose lorea, txikori-belarra, urrebotoia, korradu-belarra, goilora, zaingorria, bioleta, murruntza edo kirtengorria bereizteko gai direnak. Maialen Lujanbiok esan zuen bezala, “txori guztiak txori, arbola guztiak arbola eta zomorro guztiak zomorro diren garaiotan” bizi gara. Baita lore guztiak lore diren garaiotan ere.

Pandemiak eraginda eta bestela ere, eskolak naturara zabaltzeak dituen abantailez ohartuta, asko dira Euskal Herriko txoko desberdinetan udaberriari ateak zabaltzeko dizkioten ikastetxeak baina askotan, natura ezezagunagoa zaigulako, nola jokatu ez dakigulako edo haurrak honelako ingurune batean jolasteak beldurrak eragiten dizkigulako, zailak sortzen zaizkigu.

Ikastaro honen helburua, beraz, zailak horiei erantzutea da. Alde batetik, naturaren ezagutza sakonduz eta bestetik, naturan garatzen den jolasa ulertuz, horretarako zenbait gako emango ditugularik.

Online ikastaroa izango da hau, natura pantailaren beste aldera eramaten ahaleginduko gara baina gehiago sakontzeko, saio presentzialak ere izango ditugu lehen bi larunbatetan zehar. Saio gehienak, Moodle plataformaren bidez jarraitu ahal izango dira, nork bere erritmora eta zuzeneko online saioak ere izango ditugu Zoom plataformaren bidez.

Loratu dadila beraz eskola!

Helburuak

Naturan ikasteko ereduak, egungo pandemia eta klima-larrialdi egonei aurre egiteko tresna bezala ulertzea.

Irakasleak naturaren ezagutza eta naturan garatzen den jolasean formatzea.

Euskal curriculum naturalizatzea. Haurrek jolasaren eta naturaren bidez konpetentzia guztiak bereganatzeko eta naturarekin harremana handitzeko aukera ematea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-03-01 / 2021-03-01

Aurkezpena eta ikastaroari buruzko azalpenak

“Online saioa”

Saio honetan ikastaroko aurkezpena egingo dugu eta ikastaroari buruzko azalpenak emango ditugu

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

2021-03-01 / 2021-03-01

Naturan ikasi... zertarako?

“Online saioa”

Egun bizi dugun krisiak zerikusi handia du klima-larrialdiarekin eta honi aurre egiteko tresnetako bat, hezkuntza bera dugu. Adituek diotenez klima-larrialdiko edukiak ikasgai batean ala bestean txertatu baino, programa akademiko guztia blaitu behar dute eta tronkalak diren disziplinetan modu transbertsalean lantzea ezinbestekoa da, ikasleen bizitzetan inpaktua izan dezaten. “Garapen jasangarrirako helburuetarako hezkuntza” txostenean, Unesco etxeak dio “esperientzia zuzenak” behar direla, ikasleen arlo emozionala ukitzen dutenak. Saio honetan, Nazio batuen erakundeko 2016-2030 agendako Garapen Iraunkorreko Helburuak (ODS-ak) zer diren ikusiko dugu. Ondoren naturaz hausnartuko dugu: zer da natura eta zertarako ikasi naturan?

EMALEAK : **Kakun Orbegoza Rezola**

2021-03-02 / 2021-03-02

Naturarekin kontaktuaren garrantzia eta onurak haurtzaroan: baso-eskola eredua

“Online saioa”

Saio honetan, naturarekin kontaktua zein garrantzitsua den eta zer nolako onurak dituen ikusiko dugu, ikerketa zientifikoetan oinarrituta. Itxialdiaren aurretik eta ondoren, gure hurrek naturarekin duten harremanaz hausnartuko dugu. Natura ezaren sindromea zer den ikusiko dugu eta baso-eskola eredua aurkeztuko dizuegu: zer da baso-eskola? Zergatik baso-eskola? Baso-eskola ereduaren jatorria eta zabalkundea mundu mailan. Baso-eskola, pandemiari aurre egiteko tresna gisa eta Kutxa Ekoguneko baso-eskola eredua.

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

2021-03-03 / 2021-03-03

Biodibertsitatea eta ingurumen ezagutza euskal gizartean

“Online saioa”

COVID19ak eta ingurumenak duten harreman estua, biodibertsitatearen gainbehera, eta Euskal Herrian dugun ingurumenaren ezagutza. “Etorkizunera begira, zergatik bultzatu beharko genuke ezagutza hori?”. Gako horiek jasoko ditu bere hitzaldian Iñaki Sanz-Azkuek. Gogoratuko dugu nola konfinamendu garaian gogoeta bat orokortu zen: natura hirietara gerturatzen ari zen. “Baina itxialdia bukatu eta beste gai batzuek hartu zuten lehentasuna: batez ere ekonomia eta osasun gaiek”. Hain juxtu, ingurumena zeharo lotuta dago ekonomia eta osasunarekin: izan ere, biodibertsitatea murrizteak, biodibertsitatearen gainbeherak, pandemia berriak sortzen lagunduko du etorkizunean. “Biodibertsitatea kontuan hartzen ez badugu, gure osasunean eta gure ekonomian guztiz eragingo du. Hala diote ikerketek”. Biodibertsitatea funtsezko gaia den arren, klimari eta klima aldaketari buruz asko hitz egiten dela baina biodibertsitatearekin ez dela hala gertatzen.

EMALEAK : **Iñaki Sanz Azkue**

2021-03-04 / 2021-03-04

Ekosistemak

“Online saioa”

Saio honetan Iñaki Aizpuruk ekosistema bat zer den azalduko digu. Euskal Herrian topa ditzakegun ekosistema mota desberdinen inguruan hitz egingo digu eta segida ekologiakoak bezelako kontzeptuak landuko ditugu.

EMALEAK : **Iñaki Aizpuru Oiarbide**

2021-03-05 / 2021-03-05

Hegazti bila!

“Online zuzenean streaming bidez”

Urdaibai Bird Centerrekin zuzeneko saioa egingo dugu eta bertatik, Edorta Unamunok hegaztiei buruzko orokortasunak azalduko dizkigu, eraztuntze saio birtual bat biziko dugu eta basoetako hegaztirik arruntenak ezagutu kamara batean zehar. Bukatzeko, animalia hauei lotutako kondairak, ipuinak, abestiak eta ekintza praktikoak ikasiko ditugu, ondoren gure ikasleekin aplikatu ahal izateko. Gurekin bat egiten duzuen guztiok, Gauegiz Arteagako paduran dauden erdigunetik eta behatokitatik, hegaztiak behatzeko jardunaldi birtual bikaina izango duzue.

EMALEAK : **Edorta Unamuno Mirandona**

2021-03-06 / 2021-03-06

Landare bila!

“Online zuzenean streaming bidez”

Ordua: 09:00-11:00

Edonora begiratuta ere, beti aurkituko duzu landareren bat zure inguruan. Euskal Herrian 3.500 espezie ditugu; horietatik 225 mehatxupean. Belaunaldiz belaunaldi, ordea, landareekiko interesa eta ezagutza murrizten joan da gure gizartean, eta egun, kosta egiten zaigu inguruan ditugun landare arruntenei izena jartzea. 2001ean eginiko ikerketan, Wandersee eta Schussler botanikariek gauza bera ondorioztatu zuten Amerikako Estatu Batuetan; eta izena jarri zioten gertatzen ari zenari: *plant blindness*, landareekiko itsutasuna. Saio praktikoa honetan zehar, landareei buruzko orokortasunak ikasiko ditugu eta ondoren, gure basoetan dauden landararik ohikoenak identifikatzen ikasiko dugu. Bukatzeko, Euskal Herrian landareei lotutako kondairak, ipuinak, abestiak eta ekintza praktikoa ikasiko ditugu, ondoren gure ikasleekin aplikatu ahal izateko.

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

2021-03-06 / 2021-03-06

Oinatzak eta arrastoak

“Online saioa”

Animalien oinatzak eta arrastoak bilatzeko irteera izango da hau. Irteera honen bidez, basoen bizitza sekreturako atea irekiko dugu, oinatzak bideak jarraitzen ikasi, tamaina ezberdineko animalien oinatzak eta arrastoak nola eta non bilatu, praktikatzeko jolasak ezagutuko ditugu, animalien jarrerak ezagutu...

EMALEAK : **Jonathan Rubines Garcia**

2021-03-08 / 2021-03-08

Xomorro bila!

“Online saioa”

Ia edozein animalia txiki sartzen dugu xomorroen taldean baina egia da basoetan topatzen ditugun xomorroak, animalia talde ezberdinetakoak izaten direla: moluskoak, anelidoak, intsektuak, araknidoak, krustazeoak, miriapodoak... hau anabasa! Zenbat dira ba xomorro taldeak? Zein ezaugarri dituzte? Online saio honetan horiek denak landuko ditugu eta bukatzeko, animalia hauei lotutako kondairak, ipuinak, abestiak eta ekintza praktikoa ikasiko ditugu, ondoren gure ikasleekin aplikatu ahal izateko.

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

2021-03-09 / 2021-03-09

Perretxiko bila!

“Online saioa”

Udazken lore ere deitu izan zaien arren, udaberrian loratzen den onddorik ere badago. Baina zer dira

onddoak? Onddoak loratzen al dira? Noiz eta non topa ditzakegu onddoak? Nola jakin zein onddo diren pozoitsuak? Galdera guzti hauei erantzuna topatzen lagunduko digu Ibai Olariagak!

EMALEAK : **Ibai Olariaga Ibarguren**

2021-03-10 / 2021-03-10

Naturaren kontserbazioaren garrantzia

“Online saioa”

Zein egoeran dago Euskal Herriko natura? Eta mundu mailakoa? Nola eragin diezaioke naturan hezteak que bioaniztasunari eta habitaten kontserbazioari?

EMALEAK : **Iñaki Aizpuru Oiarbide**

2021-03-11 / 2021-03-11

Berezko jolasa, naturala eta askea

“Online saioa”

Saio honetan, naturan jolastea edo *nature play* eta bertan emango den ikaskuntza aztertzeke aukera izango dugu. Gainera, naturan jolasa nolakoa den eta sortzen diren jolas moten adibideak partekatuko dira, ikuspegi biologikoan oinarrituta. Eta honen harira, naturak garapen fase bakoitzean eskaintzen diguna aipatuko da eta hau kontuan hartuta, naturan jolasa modu osasuntsu batean emateko hainbat gako komunean jarriko dira.

EMALEAK : **Iratí Andoño Erdozain**

2021-03-12 / 2021-03-12

¿Jugamos?

“Online zuzenean streaming bidez”

La escuela de hoy en día está saturada, estresada y repleta de obligaciones. Y es precisamente en este entorno en el que estamos sumergidos donde el juego puede tener la llave que abra las puertas de la innovación y el cambio, el que nos puede ayudar a superar muchas de las dificultades a las que se enfrentan madres, padres, profesorado y alumnos. De la mano de Imma Marín recorreremos un camino lúdico en el que descubriremos las claves para transformar la educación a través del juego.

EMALEAK : **Imma Marín Santiago**

2021-03-13 / 2021-03-13

Reimaginar nuestros espacios de aprendizaje

“Online zuzenean streaming bidez”

Ordua: 10:00-17:00

Este momento de incertidumbre nos obliga a repensar nuestros espacios de aprendizaje desde la flexibilidad, imaginando nuevas opciones, creando estrategias abiertas que nos permitan adaptarnos a las circunstancias. Dice Edgar Morin que *“las crisis agravan las incertidumbres, favorecen los interrogantes; pueden tanto estimular la búsqueda de soluciones nuevas como provocar reacciones patológicas.”*

Depende de nuestra mirada que seamos capaces de transformar esta crisis en nuevas oportunidades, que pongamos nuestra energía en generar nuevas alternativas. Este momento ofrece muchas oportunidades como la de abrir la escuela al aire libre, reconectarla con la naturaleza, una idea que han reivindicado y ensayado muchos colectivos y proyectos educativos desde hace décadas. También nos obliga a buscar nuevas estrategias pedagógicas abiertas, adaptables, flexibles, porque las programaciones rígidas que imperan en nuestro sistema educativo no pueden dar respuesta a este momento de incertidumbre.

Necesitamos generar una diversidad de escenarios adaptables que inviten a nuevas formas de relación, de juego, de experimentación y de aprendizaje. No podemos dejar que este momento sea una vuelta atrás en el proceso de cambio ya conseguido, sino el empujón que necesitábamos para que nuestros espacios de aprendizaje puedan metamorfosearse.

En el día que compartiremos juntas vamos a explorar juntas estas ideas, primero trayendo al interior los materiales de la naturaleza y después saliendo al exterior para crear al aire libre.

EMALEAK : **Irene Fernández Álvarez**

2021-03-16 / 2021-03-17

Naturan jolastearen garrantziaz

“Online saioa”

Naturan jolasteak, onura handiak ditu haurren garapenerako, ongizaterako eta osasunerako, batez ere etapa goiztiarretan. Egituratu gabeko espazio eta material ugari izateak ikerketara, esploraziora eta esperimeneziora gonbidatzen ditu haurrak, begirada kritikoa sustatzen du eta haurren erresilientzia indartzen du. Kanpoaldean errazagoa da segurtasun-tarteak mantentzea, infekzioak zailtasun handiagoz transmititzen dira eta airearekin eta eguzkiarekin kontaktuan egoteak defentsak indartzen ditu. Horregatik, gela bat baino espazio seguruagoa da natura. Saio honetan, naturak jolasari zein ekarpen egiten dion ikusiko dugu. Jolasaren dimentsioa (kognitiboa, soziala eta mugimendua), naturan nola aldatzen den ikusiko dugu eta naturak haurren jolasean eta generoan nola eragiten duen aztertu.

EMALEAK : **Iñaki Larrea Hermida**

2021-03-17 / 2020-03-17

Jolaserako materialak

“Online saioa”

Zer dira material irekiak? Zer dio pieza solteen teoriak? Zer nolako material irekiak aurki daitezke naturan? Zein abantaila du material irekiekin jolasteak?

EMALEAK : **Irati Andoño Erdozain**

2021-03-18 / 2021-03-18

Escola Bressol Els Bellugets: Natura eta jolasa erdigunean

“Online saioa”

Els Bellugets Gironako Palafrugelleko udal haurreskola da, lau hilabete eta hiru urte bitarteko hurrei eta euren familiei zerbitzua eskaintzen diena. Ingurune nahiko pribilegiatuan, eremu mediterranean ohikoak diren arte, pinu, sastraka eta zuhaixka tipikoen bi baso txikiren ondoan kokatuta dago. Ekosistema aberatsa alderdi guztietan. Eskolaren ardatz nagusia eguneroko bizitza da. Haurrari bizitzen, harremanak izaten, ezagutzen eta elkar ezagutzen ikastea errazten dion ardatza da. Beraz, eguneroko bizimodutik eratortzen diren proposamenak dira profesional-taldeari ikaskuntza-agertoki desberdinak antolatzeke aukera ematen diotenak, haurrari laguntzeko bere oinarritzko beharrak asetzen. Saio honetan, Els Bellugets eskolako irakaslea den Maialen Arriaga izango dugu gure artean eta berak azalduko digu, nola naturan jolasten utzita oinarritzko behar horiek asetzen dituzten haurrek, gaitasun motor, afektibo eta kognitiboak garatzen giro lasai, erlaxatu, atsegin eta erosoan.

EMALEAK : **Maialen Arriaga Cayuela**

2021-03-22 / 2021-03-22

Arriskuaren pedagogia

“Online saioa”

Haurren izaerak arriskuak hartzea eragiten du. Eta naturak arrisku horiek joko librearen bidez modu seguruan esperimintatzea ahalbidetzen du. Haurtzaroak arriskua behar du garapen osasuntsu baterako. Arrisku-jokoa formula perfektua da, motibatzen dutelako, beldur zuzena sortzen duelako eta arrisku-joko horren diseinatzaileak haurrak beraiek direnez, euren garapen-unera eta beharretara egokitzen delako. Abentura, arriskua, jakin-mina... "arrisku-jokoak" dira askotan haurren gustukoenak.

EMALEAK : **Oihana Imaz Recondo**

2021-03-23 / 2021-03-23

Segurtasun irizpideak eta prebentzioa basoan

“Online saioa”

Zer izan kontutan basoa aukeratzeko orduan (alerta meteorologikoak, jabetzak, eskolek alerta

protokoloa...)? Baso-eskolako eegurtasun prozedurak eta protokoloak ikusiko ditugu, baita basoan gertatu ohi diren istripu ohikoenak nola sahiestu baita hauek gertatu ezker, nola jokatu ere.

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

2021-03-24 / 2021-03-24

Ez ezer ahaztu! Zer eraman basora eta nola prestatu saioak

“Online saioa”

Saio honetan zehar baso-eskolarako gomendio praktikoak emango ditugu. Nola presatu haurrak eta helduak? Jantziak eta baso-eskolako kita, bilgunea eta arauak, baso-eskolarako kohesio jolasak, natur-eremuarekiko atxikimendua...eta askoz gehiago!

EMALEAK : **Irati Andoño Erdozain**

2021-03-25 / 2021-03-25

Nola eskuratu gaitasunak naturan?

“Online saioa”

Naturan eta jolasean... haurrek lortzen al dituzte kurrikulum ofizialean eskatzen diren konpetentzia guztiak? Eta nola moldatzen dira gero Lehen Hezkuntzara, ikasgelara bueltatzen direnean? Eta nola lortu gaitasun guztiak naturan?

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

2021-03-26 / 2021-03-26

Eskolen esperientziak

“Online saioa”

Saio honetan, baso-eskola sarean lau urte eman dituzten hiru eskolei emango diegu hitza: Hernaniko Langile Ikastola, Tolosako Felix Samaniego eskola eta Alkizako eskola txikia. Noiz ateratzen dira naturara? Nola? Nola betetzen dute ratioekin? Eta Covid neurriekin?

EMALEAK : **Maite Ezponda Irizar
Jone Zuaznabar Urkola
Ana Hernández Sancho
Asun Salaberria Larrarte
Itziar Atxukarro Otegi**

2021-03-29 / 2021-03-29

Eskoletako urmaelen sarea

“Online saioa”

Aranzadiko herpetologoek putzuz bete dizkigute Euskal Herriko ikastetxeak. Eskoletako Urmaelen Sarea eskola inguruan urmaela edo putzua duten eta eremu hori erabilera didaktikorako erabiltzen duten Euskal Herriko ikastetxeen sarea da. Bere helburu nagusia eskola horien arteko lotura sustatzea eta esperientziak partekatzeko aukera ematea da. Saio honetan zehar, Ion Garin, Iñaki Mezquita, Ane Fernandez eta Iñaki Sanz-Azkuek, sare honen nondik norakoak azalduko dizkigute.

EMALEAK : **Iñaki Sanz Azkue**
 Ion Garin Barrio
 Iñaki Mezquita Aramburu
 Ane Fernandez Arrieta

2021-03-30 / 2021-03-31

Sortu zuen proiektua

“Online saioa”

Datozen egunetan zehar, ikasitakoarekin zuen naturan heztearen inguruko proiektu bat lantzeko eskatuko zaizue.

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

2021-04-01 / 2021-04-01

Agurra eta ebaluazioa

“Online saioa”

Garatutako proiektua ebaluatuko da eta ikastaroa agurtuko dugu.

EMALEAK : **Maialen Sistiaga Poveda**

Zuzendaritza



Maialen Sistiaga Poveda

Kutxa Ekogunea, Baso Eskola

Biologian doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitatean, British Columbiako Unibertsitatean (Kanada) eta Cagliariako Unibertsitatean (Italia) aritu izan da lanean ikertzaile eta irakasle gisa. Esperientzia zabala du aisialdi taldeen koordinazioan eta egun, Kutxa Ekoguneko Baso-eskola proiektuko arduradunetako bat da. Kutxa Ekogunean Ingurumen Hezkuntzako departamentuan ere egin izan du lan eta EuskalNatura (UEU Natur Zientziak) taldeko kidea da 2007 urtetik. Horrez gain, EHU/UEUko Online Irakaskuntza Masterreko irakaslea da.

Irakasleak



Iñaki Aizpuru Oiarbide

IHOBEko Edukietako burua eta Natur Sistemien Saileko teknikaria da, intereseko landareak eta habitatak aztertzeaz eta kontserbatzeaz arduratzen dena. Flora Iberica proiektuko lantaldeko kidea da, eta Pirinioetako atlas floristikoaren koordinatzailea, Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokiaren baitan.



Irati Andoño Erdozain

Kutxa Ekogunea

Kutxa Ekoguneko Baso-eskola teknikaria da. EHUko Bilboko Irakasleen eskolan irakasle ikasketak burutu ditu, Haur Heziketan espezialitatea eta Bartzelonako Unibertsitatearen eskutik Ikaskuntza Espazioen Diseinua graduondoa burutu du. Esperientzia handia du haur eta gazteekin bai helduekin lanean, herrialde eta hezkuntza zein laguntza ezarpen ezberdinetan. Baso Eskola edo Forest Kindergarten proiektua lideratzen aritu da Eskozian urte luzez eta Bandera berdea (Eco Flag) lortzeko partaide aktiboa izan da.



Maialen Arriaga Cayuela

Iruindarra. Bartzelonan (UPF) eta Estokolmon (SU) Ikus-Entzunezko Komunikazioan lizentziatua eta Gironan (UdG) eta Reggio Emilian (UNIMORE) Haur Hezkuntzan graduatua. Reggio Emiliako eskolen filosofian sakondu eta Boloniako eskoletako proiektu pedagogiko ezberdinetan parte hartu ondoren, Eta Beta kooperatibaren eskutik “Outdoor Education” eta material naturalen inguruan ikerketa eta esperientzia pedagogikoetan murgiltzen hasi zen, natura oinarritzko kontestu hezitzaile eta bizileku nagusitzat hartuz. Baso-eskolak abiapuntutzat izanik eta Carme Cols eta Pitu Fernández (El Safareig)-ekin formakuntza eta proiektu ezberdinak burutuz, eskoletako kanpoaldean naturalizazioan lanean dabil azken denboraldian. Palafrugell-eko Els Belluguets eskolan (Girona) txiki txiki (0-3) eskubide naturalak bermatzeko helburu horrekin ere lan egiten du, hausnarketa etengabea.



Itziar Atxukarro Otegi

12 urte daramatza irakasle lanetan Euskal Eskola Publikoan, hasierako urteetan Heziketa Fisikoko irakasle bezala ibili eta azken 5 urteetan Haur Hezkuntzako tutore modura. Honako ikasturtea bidgarrena du Tolosako Samaniego ikastetxean, aurtan 5 urteko hurrekin eta baso-eskola proiektuan parte hartzeko aukera izan du. Baso-eskolaren inguruko lehen informazioa eta esperientzia Albizturko ikastetxean jaso zituen orain 3 ikasturte.



Maite Ezponda Irizar

Langile Ikastola

Langile ikastolako HHko irakaslea. Baso-eskolan formatua Philip Bruchner, Cercedako Bosque Escuelako sortzailearekin. Azken hiru ikasturtetan Baso-eskola proiektuan murgildu diren 4 eta 5 urteko hurrekin ibili da. Lehenengo urtean Ekoguneko pilotajearen gidaritzapean, bertako hezitzaileekin batera. Hortik abiatuta, Ikastolak diseinatutako proiektua aurrera eramaten parte hartu du. Hernaniko Langile eskolako irakaslea, hiru urte eman ditu baso-eskola programan, 4 urteko ikasleekin.



Irene Fernandez Alvarez

Arquitecta y músico especializada en el diseño de espacios artísticos y pedagógicos. Su experiencia es muy variada, abarcando desde el campo escénico, al trabajo como artista visual y el de diseñadora de ambientes de aprendizaje. En los últimos años ha centrado su trabajo en la investigación y desarrollo de espacios de innovación pedagógica a través de diferentes lenguajes artísticos. Presidenta de la asociación pedagógica ILER (Innovative Learning Environment Research) y fundadora y coordinadora del proyecto CREATECTURA, está especializada en el público familiar e intergeneracional y en la formación y acompañamiento de maestros y educadores en diseño de ambientes, la integración artística en las aulas y el desarrollo creativo.



Ane Fernandez Arrieta

Donostian jaioa, 1995ean. Ingurumen Zientzietan graduatua Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik (2017), Biodibertsitateari buruzko Masterra (2018) egin du, Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, animalien biodibertsitatean espezializatua. Duela gutxi amaitu du EHU-ko Irakasleen Prestakuntzako Masterra (2020). 2017az geroztik, Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Sailean dihardu lanean. Karguan egiten dituen lanen artean, ikerketa-proiektuak (ekotoxikologia, portaeraren ekologia, etab.), EAEko eta Nafarroako anfibio eta narrastien espezieen kudeaketa eta kontserbazio proiektuak (populazioaren jarraipena, erroldak, putzuen sorrera eta egokitzapena, etab.) eta herpetologiaren esparruan dibulgazio proiektuak (bisita gidatuak parke naturaletan, haurrentzako tailerrak, identifikatzeko ikastaro teknikoak, etab.) burutzen ditu.



Ion Garin Barrio

Euskal Herriko Unibertsitateko Biologiako lizentziatua (2005). Bere lan-ildo nagusia populazioen eta habitaten kudeaketa eta jarraipena da eta, oraindik orain, espezieen jokabidearen ildo experimentalari lotu zaio. Fauna inbentariatzeko lanak egin ditu eta herpetofauna aztertzeiko irakaskuntzan eta ingurumenerako boluntariotza-programetan monitore eta koordinatzaile jardun du.



Ana Hernández Sancho

Alkizako Eskolako Haur Hezkuntzako irakaslea eta psikomotrizitateko teknikaria. Baso-Eskolako formazioa Philip Bruchner, Cercedako Bosque Escuelako sortzailearen eskutik egina du. Azken lau ikasturtetan Baso-Eskola proiektua Alkizako eskolan aurrera eramaten ari da, pilotaje moduan sortu zenetik gaur egun arte. Proiektuak lehenengo urteetan Ekogunea izan du bidelagun, eta bide honetan, nortasun propioa duen proiektua eratu da, dagoeneko Alkizako Eskolan eta baita Herrian ere txertatuta dagoelarik.



Oihana Imaz Recondo

Donostian 1994an jaioa, Haur Hezkuntzako atzerriko hizkuntza ibilbidean (Mondragon Unibertsitatea) graduatua da eta Finlandian (University of Turku), "Learning, learning environments and educational systems" masterra burutu zuen, bere interesekoa den kanpo espazioaren erabilera eta haurren arrisku jokabidearen gaian espezializatuz. 2018tik Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko irakaslea da. Atzerrian bizitako esperientzia ezberdinek (Islandia, Gales eta Finlandia) bere ikerketa gaiak eta interesak definitu dituzte; kanpo espazioen erabilera (arrisku jokabidea), kulturartekotasuna eta hizkuntza aniztasunaren trataera eskoletan, besteak beste. Eskuarlean dituen proiektu esanguratsuen artean, beste ikerkide batzuekin Euskal Herriko eskoletan kanpo espazioaren erabileraren eta antolaketaren inguruan emandako formakuntza saioak daude.



Iñaki Larrea Hermida

Iñaki Larrea Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea da. Irakasle eta psikopedagogiako ikasketak burutzeaz gain, doktorego tesia egin zuen Haur Hezkuntzaren ezaugarriek haurren garapen ebolutiboan duten eraginaren inguruan. Bere ibilbide profesionalean, unibertsitatean irakasle eta ikertzaile bezala eta ikastetxeetan aholkulari gisa, kalitatezko Haur Hezkuntza bultzatzeko ahaleginean dihardu. Lan horren isla dira 3 liburu eta hainbat artikulu eta komunikazio. Azken urte hauetan, eskoletako kanpo espazioak eta horiek haurraren garapenaren eragina aztertzen ari da. Gaiari buruzko hainbat argitalpen egiteaz gain, parte hartu du ikastetxe batzuetako kanpo espazioak eraldatzeko prozesuetan.



Imma Marín

Emakumea, ama eta ekintzailea. Hezkuntzan eta komunikazioan espezializatua, jolasaren eta ikasteko metodologia ludikoen bidez. Formazioz irakaslea eta bokazioz pedagogia ludikoan hezitzailea. JOLASA konpromiso pertsonal eta funtsezko bihurtu du, eta horren ondorioz sortu zuen 1995ean MARINVA enpresa, jolasaren bidez pertsonak eta erakundeak eraldatzeko laguntzeko. Hizlari kementsua da, eta jolasaren ahalmenak ezagutarazten ditu eta jokatzeko gogoia pizten du pertsonengan, hauen adina eta lanbidea edozein dela ere. IPA España elkartearen presidentea da (haurren jolasteko eskubidearen aldeko elkarte). Haur Jolasaren Behatoki (OJI) eta San Juan de Dios Ospitaleko Aholku Batzordeko kidea da.

Master eta graduondoko irakasle laguntzailea hainbat unibertsitatetan. ¿Jugamos? Liburuaren egilea da eta "JUGAR una manera de vivir" blogean argitaratu ohi du.



Iñaki Mezquita Aramburu

Hogeita hamar urte daramatza naturari argazkiak ateratzen eta behatzen, horietako hogeita bost odonotoei eta lepidopteroei erreparatzen eskusiban. Hainbat liburu argitaratu ditu, eta batzuetan ere kolaboratu.



Ibai Olariaga Ibarguren

Biologian lizentziatua eta doktorea, mikologian aditua. Ikerketa kontratuak izan ditu Sueziako Zientzia Natur Museoa, Upsalako Unibertsitatean eta Alkalako unibertsitatean. Egun, Rey Juan Carlos unibertsitatean dihardu irakasle bezela. Urte luzez Aranzadi Zientzia elkarteko Mikologia saileko kidea, eta azken 5 urteetan zuzendari gisa dihardu eta Iberiar Mikologia elkarteko lehendakari ere bada. Zientziarako 20 onddo espezie berri baino gehiago deskribatu ditu bere argitalpenetan egundaino



Kakun Orbegoza Rezola

Kutxa Ekogunea

Kutxa Ekoguneko Edukien eta Ingurumen Heziketako gaien zuzendaria da. Biologian lizentziatua da eta Zoologian espezializatua. Desagertzeko arriskuan dauden animalien mantenua zein kautibitatean ugaltzeari buruzko diplomatura egin zuen Ingalaterran eta geroztik Ingurumen Heziketan, Natur guneen erabilera publikoan eta Ondarearen interpretazioan egin du lan batik bat. Galemys S.L. enpresaren sortzailetako bat da.



Jonathan Rubines Garcia

Biologo sutsua, Animalien Biologiako Ikasketa Aurreratuen Diploma eta Kazetaritza eta Komunikazio Zientifikoko unibertsitate-aditua. UPV/EHUn ikertzaile gisa hasi zuen bere ibilbide profesionala, eta zenbait urtez ingurumen-hezitzaile aritu zen, eta kontserbazionisten elkartean buru izan zen, fauna kontserbatzeko eta dibulgazio-jardueretarako proiektu ugari eginez. Gaur egun, Naturgune Babestuen kudeatzaile gisa lan egiten du, eta jarduera horrekin batera argitalpen espezializatuak eta irakaskuntza egiten ditu.



Edorta Unamuno Mirandona

Urdaibai Bird Center

1993. urtean Ekosistemen Biologian lizentziatua eta 1995. urte arte EHUKo Ekologia eta Animalia Fisiologiako Zoologiako laborategian malakologia atalean aritua. 1995-2009 urteetan zehar Lurraska Baserri Eskolan ingurumen hezkuntzako proiektuetan koordinatzaile gisa lanean.



Asun Salaberria Larrarte

Alkizako Eskolako Atzerriko Hizkuntzako irakaslea, ikasturte honetan Baso-Eskola ezagutu eta bertan guztiz murgildu da, astean behin Haur Hezkuntzako ikasleekin parte hartuz proiektua aberasten duelarik.



Iñaki Sanz Azkue

Biologian Lizentziatua (2004) Euskal Herriko Unibertsitatean. Egun, Donostiako Ingurugela-CEIDako teknikaria da. Herpetologiako hainbat arlotan lan egin du. Burutu dituen lan gehienak herpetofaunari buruzko inbentariatzeko, jarraipen eta kontserbazioari loturik badaude ere, narrastien genetikari buruzko ikerketan ere badu esperientzia. Herpetologia utzi gabe, beste hainbat adar ere jorratu izan ditu, botanika esaterako. Hainbat landare mehatxaturi buruzko lanak burutu eta publikatu ditu. 2006tik ondare naturalaren eta ahozko ondarearen ezagutza eta kontserbazioari loturiko jakintza-alor anitzeko hainbat proiektutan lan egiten du eta koordinatzen ditu. Azken urteetan Argia astekariaren, Gara egunkariaren eta Urumeako Kronikaren kolaboratzaile ere bada, eta ingurumenari, etnografiari eta zientziari loturiko dibulgazio erreportajeak idazten ditu.



Maialen Sistiaga Poveda

Kutxa Ekogunea

Biologian doktorea da eta Euskal Herriko Unibertsitatean, British Columbiako Unibertsitatean (Kanada) eta Cagliariako Unibertsitatean (Italia) aritu izan da lanean ikertzaile eta irakasle gisa. Esperientzia zabala du aisialdi taldeen koordinazioan eta egun Kutxa Ekoguneko baso-eskola proiektuko teknikaria da. Gainera, EuskalNatura taldeko kidea da eta UEUko Irakasleen Prestakuntza Masterreko irakaslea.



Jone Zuaznabar Urkola

Alkizako Eskolako Haur Hezkuntzako irakaslea. Baso-Eskolako formazioa Philip Bruchner, Cercedako Bosque Escuelako sortzailearen eskutik egin du. Azken lau ikasturtetan Baso-Eskola proiektua Alkizako eskolan aurrera eramaten ari da, pilotaje moduan sortu zenetik gaur egun arte. Proiektuak lehenengo urteetan Ekogunea izan du bidelagun, eta bide honetan, nortasun propioa duen proiektua eratu da, dagoeneko Alkizako Eskolan eta baita Herrian ere txertatuta dagoelarik.

Matrikula prezioak

MATRIKULA	2021-03-03 ARTE
OROKORRA	152,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	132,00 EUR
IRAKASTEKO IKASTEN MURRIZPENA	132,00 EUR
ELKAR txarteldunak	132,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	132,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	106,00 EUR